

betiko egongo den zerbait dela barneratu du eta horrek ere ez digu lagundu, zerbitzu publikoa izatearen sentsazioa eta eskakizun zehatzak ez direlako ez aberasgarri ezta goxoak ere. Tamalez, dinamika hau jendearen benetako parte hartzearen kontrakoa da, espazio eta proiektuetan parte hartu beharrean, instituzioek bultzatutako beste espazio edota zerbitzuen modura erabiltzen baitira.

Dena dela, krisia (nolabait deitzearren) zabaldua dago, ez da Likira mugatzen den gertakaria eta milaka aurpegi ditu. Politika ulertu eta egiteko modu baten porrota aipatu dugu lehen, baina egunerokotasuna eta jendartearen aldaketa kontuan hartu gabe ez dago gertatutakoa ulertzerik. Beraz, Liki sortu zenetik testuingurua nola aldatu den aztertzea beharrezkotzat jotzen dugu.

90. hamarkadan azken bultzada politikoa gertatu zen, bai euskal gatazkari dagokionez bai bestelako borrokei, hala nola intsumisioari edota antidesarrollismoari dagokienez. Hala ere, hamarkada aurrera egiteak gatazkaren kulturaren desagertzea ekarri zuen. Desagerpen honen hasiera eta prozesuak hartuko duen abiadura ulertzeko, globalizazioaren aurkako mugimenduen papera eta ETA-ren su-etena kontuan hartzea ezinbestekoa da. Lehenengoen politikak egiteko beste erak ezartzen lagundu zutelako (ekintzak ikuskizun bilakatuz edota aldarrikapen garantistak indartzuz) eta bigarrena gatazka politikoaren amaiera sinbolikoa izan zelako. Hurbilago dagoen gure errealitate honetan beste hainbat aldaketa gertatu ziren: Estatuaren garaipena, Bilbo hiria eraldaketa eta kulturaren espektakularizazioa, besteak beste. Politika erradikala (edo horren itxura duena behintzat) arte eta kultura postmodernoren osagai bihurtu da eta zentzu horretan Bilboko kasua adierazgarria da oso. Hiri honen terziarizazio prozesuak kritika soziala bere egin du, erabat akritikoa bihurtuz. Bestalde, ez guk eta ez beste askok, ez dugu jakin horren kontra egiten, eta zenbait ideia erradikalen esanahiak hustu egin dira.

Borrokei dagokionez, orduan sortutako borroka berriak garaia nora ez zuten gaitzen dira eta aurretik zeudenak gero eta isolatuagoak daude, gauzak egiteko orduan inertzia nagusi dela gehiegitan. Gure kolektiboan, 90. hamarkadan parte hartze zabalagoa zela aipa dezakegu, bai asanbladetan baita dendaren kudeaketan ere. Iturribidetik Rondara jaisteak leku aldaketa baino zenbait gauza gehiago ekarri zituen. Alde batetik, ordura arte guztion artean egindako hainbat gauza liberatuen esku gelditu ziren, eta talde-lana eraginkortasunak ordezkatu zuen. Egun, orain arte egindako akatsik nagusienetakoa hauxe izan zela pentsatzen dugu, erabateko salarizazioak kolektiboan parte hartzeko moduak murriztu zituelako eta honek eragin zuzena izan zuelako bai pertsonen arteko harremanetan baita kolektiboaren bilakaeran ere.

Geroxeago Estatu espainarrak eragindako ilegalizazioek ez dituzte politika egiteko bestelako moduak bultzatu, instituzioetan parte hartzeko aldarrikapena indartu besterik ez dute egin eta. Ezin ukatu, ilegalizazioak aurreikustean horren aurka aritzeko bide ezberdinak jorratzen saiatu ginela batzuk eta besteak. Ezin ditugu ahaztu kolektibo ezberdinek hiri eta herri anitzetan sortutako koordinakundeak, baina gure ustez lortutako emaitzak oso eskasak izan ziren.

Azken urteotako joera aztertzerakoan, bi hitz dira nagusi: instituzionalizazioa eta ideologizazioa. Instituzionalizazioaz mintzatzen garenean, erradikalitasuna erabat gaitzen ari den ezkerrean pentsatzen ari gara; ideologizazio hitza, aldiz, gertuago ditugun zenbait kolektibotan izandakoa, koerentzia handia barrura begira, baina ghettotik at eraginik eta lanik ez. Bata zein bestearen emaitza, gatazkarik eza izan da. Hau guztia aurreikusi eta zenbait gauza egiten saiatu bagara ere, porrot egin dugu, ez dugu gure erabakietan sinetsi eta, gure kasuan ere, askotan inertiak nagusitu dira.

Dena dela, urte guzti hauetan egindako lanari ez diogu garrantzia kendu nahi. Gure proiektuaren lorpenak akatsak baino gehiago izan direla uste baitugu. Likian kolektibo zein pertsona askorentzat erreferentzia izan baita, eztabaidarako gunea, material interesgarriak topatzeko lekua edota kartelak, komunikatuak eta abarrekokoak kaleratzeko azpiegitura.

Hausnarketaren ondorioz, Likianiano Elkarteak kideok kolektiboa bertan behera uztea erabaki dugu. Ez dugu "ez dira betiko garai onenak" esaten, ez da malenkonia nagusi, baina aurrera egiteko bideak beste batzuk direla erabaki eta gero, horretara jartzeko premia dugu.

Laster arte.



Lagun hori:

Esku artean duzun izkribua Likiniano Elkartearen agurra da. Hots, kolektiboa bertan behera uztera bultzatu gaituzten arrazoiaren azalpen publikoa. Likiniano Elkartearen desegiteko erabakia sendoa da oso, ez dago atzera egiterik, eta kolektiboaren ibilbide zein egoera soziopolitikoaren azterketan dago oinarrituta. Guretzat une berezi eta garrantzitsua izanik, gure erabakiaren arrazoiak sakonki aztertu eta plazaratu nahi ditugu, gure buruarekin eta urte luze hauetan bidelagun izan ditugun pertsona zein kolektibo guztiekin zintzoak, politikoki zintzoak, izan nahi baitugu.

Lehenengo eta behin, erabaki politikoa dela azpimarratu nahi dugu. Beraz, arazoa ez da ekonomikoa, proiektua ekonomikoki bideragarria baita, politikoa baizik. Gure ustez, azken urteotan gauzak erabat aldatu dira eta ez du zentzurik orain arte izandako dinamika eta egiteko moduekin aurrera jarraitzeak, besteak beste ez gaituelako politikoki asetzen. Honek ez du esan nahi etxean sartuko garenik, bestelako saltsetan baikabiltza eta gauza berriak egiteko prest egon bagaude, baina horretarako egun zenbait proiektu bukatutzat jotzea ezinbestekoa dugu. Erabaki hau inguruko zenbaitentzat hausnarketarako bultzada izatea biziki poztuko gintuzke. Bestalde, argi utzi nahi dugu ekonomia ez dela erabakigarria izan ez proiektua bertan behera uzteko ezta aurrera jarraitzeko ere: soldatak, lokalak eta abarrekoak mantentzearen aurrera egiteari ez baitiogu zentzurik ikusten.

Baina abia gaitezen. Dakizunez, Likiniano Elkartearen 90. hamarkadaren hasieran sortu zen: kolektibo eta mugimendu ezberdinetan parte hartzen zuten pertsona anitzen topagunea eraikitzearen nahiaren emaitza izan zen. Topagune fisikoa, material antikomertziala eta sistemaren aurkako gaiak lortzeko leku iraunkorra eraiki genuen, baita harreman politikoak lantzeko gunea ere aspaldiko gataska erabat ideologikoa alde batera utzita, elkarlanean aurrera egitea posible ikusten baikenuen. Edonola ere, helburua erradikalitatearen *ghettotik* ateratzea zen, material horiek jendartearengana hurbilduz eta elkarlanerako zubiak eraikiz.

Hamaika urte igaro eta hasierako helburu horiek eraldatu egin dira. Argi dago proiektu baten helburuak bertan parte hartzen duen jendeak finkatzen dituela eta pertsonen joan-etorriek eragina izan dutela horietan. Bestalde, proiektu hau une historiko zehatz batean sortu zen, herri mugimenduen eta kaleetan egindako politikaren papera oso bestelakoa zenean. Egundak, estreinatu berria dugun 2006. urte honetan, hasierako ideia horiek alde batera utzi behar ditugula deritzogu, guztiz, gure politika egiteko modua erabat baztertua izan baita, eta akabatze eta negoziazio politikoaren aroa baitatorkigu. Dena dela, gaur ere, betiko lez, autogestioa eta jendarteko borroketan parte hartzen dutenen antolaketa horizontala aldarrikatzen dugu; hau da, abangoardiaren papera arbuatzen dugu, zapalduak beraiek haien arazoak konpondu behar dituztela ondo baitakigu. Hortaz, bitartekaritza guztien aurka eta bitartekari profesionalen zein Estatuaren instituzioengandik sortutako mendekotasunen aurka egon gara eta egongo gara.

Arestian esan dugunez, ezinegona ez da gaur goizekoa, baizik eta barneko hausnarketa eta autokritikarako lagun zaharra dugu aspalditik. Era berean, urte hauetan izandako akats nagusiak egungo erabakia ulertzeko lagungarri suerta daitezkeelakoan gaude. Beraz horiek azaltzeari ekingo diogu. Laburbiltzearen, guretzat politikoki garrantzitsua diren kontuak, bai eztabaidetan parte hartu eta bultzatzeko gaitasuna, bai argitalpenak kolektiboki lantzea edota bai beste pertsona eta kolektiboekiko harreman sendoak garatzea, ez ditugu azkeneko urteetan behar bezala landu, denda kudeatzearen lanetan buru-belarri sartuta ibili baikara. Denda egunero ireki, azoketan parte hartu eta gure buruari ezarri diogun bestelako betebeharrak pairatzen ari garen eraldaketei buruz eztabaidak sortu eta sistemaren aurkako ekimen politiko berriak garatzeko astirik, gogorik edota indarririk ez digute utzi. Beraz, guregana hurbildu den jende askorentzat, guk ere inoiz izan nahi ez genuena bilakatu gara, produktu kultural alternatiboaren saltzaile hutsak ikusten baikaitu jende askok. Honetaz gain, jendeak Liki eta Likiren zerbitzuak (argitalpen kontuak, fotokopiak, lokala, zenbait material eta abar) hor betidanik eta